

**EMAKUMEOK
KALERA !!**



**ETXEKO LANETAN
GREBA**

IRAILAREN 26an , ETXE HAU GREBAN !

Berriro ere kalera. Emakumeok irailaren 26 honetan berriz ere kalera irtengo gara, Raxoiren "azken belaunaldiko" eraso eta murrizketa sozialen aurka borrokatzera.

Erratzak, garbitzaileak, erosketarako orgak, amantalak eta beste hainbat arma eskuetan hartu eta soldatapeko nahiz soldatarik gabeko emakumeok plazak hartuko ditugu aspaldian ezagutu gabeko ofentsiba kapitalista honi gure erresistentzia agertzeko eta berriro ere, jendarte heteropatriarkala jomugan jartzeko.

Gure bizitzak prekarizatzen jarraitzen duten heinean, Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxatik irakurketa eta ekintza feminista propio bat defendatu nahi dugu testuinguru atzerako honetan; atzerakoia ekonomia eta finantzen ikuspuntutik, baina baita moralaren eta antzinako tradizioen aldetik ere. Eskuinak ez du barkatzen.

Honegatik guztiagatik ondorengoa aldarrikatzen jarraitzen dugu:



**ETXEKO ETA ZAINZA LANAK, ERREKONozIMENDURIK GABEAK
ETA GARANTIETAN HANKAMOTZ DIRENAK, LANAK DIRELA.**



**SISTEMA EKONOMIKO ETA SOZIAL HONEK EMAKUMEOK EGITEN
DUGUN LAN IKUSEZINAREKIN DAUKAN ZOR HISTORIKOA IKARA-
GARRIA DELA, MERKATUEKIN DUENA BAINA HANDIAGOA IZANIK.**



**PERTSONAK ETA BIZITZAK GARELA LEHENTASUNA, ETA EZ
MERKATUAK.**



BADA GARAIA ETXEETAN ERE GREBA EGITEKO!

Horregatik guztiagatik, Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxatik dei bateratu bat egiten dugu hurrengo irailaren 26an Hego Euskal Herriko sindikatu eta mugimendu sozialek deituriko Greba Orokorrekin bat egiteko. Egiturazko eta sarraski politika hauen aurrean desobedientzia zibile-rako apostua egiten dugu, baita errekonozimendu eta baliorik gabeko lanetan greba egitea ere, bizitzaren iraunkortasunerako guztiz beharrezkoak diren lanetan hain zuzen ere.

Euskal Herriko emakumeon mundu martxarako plataforma

